

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Malen Barriola Eskubi

*Leitza,
Nafarroa
(1999)*

Aurkibidea



Biografia



1999ko abuztuaren 8an jaioa, Iruñean bizi da Malen, baina ostiral iluntzero eta oporraldi guztietan egiten du Leitzara. Lagun talde edo koadrila, beraz, bietan du. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako ikasketak egiten ari zen Iruñeko Iturrama ikastetxean, Leitzako koadrilako hiru lagunekin elkarriketatu genuenean. Lagunartea, musika, euskal dantzak, eskia, eskalada, irakurzaletasuna, telebista saioak, ITak eta hipika izan zituen mintzagai Malenek, besteak beste, Beñat Canflanca lagun leitzarrarekin eginiko elkarriketan.

Zintak

LTZ-003

- **Proiektua:** Gazte gara gazte
- **Elkarriketatzailerak(k):** Errazkin, Aitor
- **Data:** 2015-01-02
- **Iraupena:** 36 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Lizeaga, Irati

LTZ-005

- **Proiektua:** Gazte gara gazte
- **Elkarriketatzailerak(k):** Errazkin, Aitor
- **Data:** 2015-01-02
- **Iraupena:** 26 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Lizeaga, Irati

LTZ-007

- **Proiektua:** Gazte gara gazte
- **Elkarriketatzailerak(k):** Errazkin, Aitor
- **Data:** 2015-01-02
- **Iraupena:** 27 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Lizeaga, Irati

Pasarteak

1. Non elkartzen zarete lagunak?

- **Erref:** LTZ-003/003
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:05:07. **Bukatu:** 00:08:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Tabernetan, kalean, dendetan... elkartzen dira. Lagun baten kafetegian ere egoten dira. Udan plazan eta pistinan elkartzen dira. Erraketan jolasten ibiltzen dira beste kuadrillekin batera.

2. "A fuerar"

- **Erref:** LTZ-003/004
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:08:39. **Bukatu:** 00:10:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

<p>Plazan erraketarekin jolasten dira, galtzen duena bota eta bi talde gelditu arte. Ondoren finala. Umeak, helduak, gazteak... jolasten dira.</p>

3. Mugikorra behar baino gehiago darabilte

- **Erref:** LTZ-003/005
- **Iraupena:** 0:04:37. **Hasi:** 00:10:01. **Bukatu:** 00:14:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak

Laburpena:

Sare sozialek presentzia handia dute haien bizitzan: Instagrama, Twitterra, SnapChat, Ask...

4. Esperientzia txarrak sare sozialetan

- **Erref:** LTZ-003/006
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 00:14:38. **Bukatu:** 00:18:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak

Laburpena:

Gauza zakarrak galdetzeko eta iraintzeko erabiltzen direla aipatzen dute. Ondoren mintzagai bihurtu eta zabaldu egiten dira gertatutakoak.

5. Institutuan ikasten dute biek

- **Erref:** LTZ-003/007
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:18:30. **Bukatu:** 00:19:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:**6. Iturrama ikastetxean gatazka**

- **Erref:** LTZ-003/008
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:19:11. **Bukatu:** 00:21:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

<p>El mundo eta Intereconomian Iturramako ikasle guztiak ETAkideak direla esan zuten.</p>

7. Irakurzaleak biak

- **Erref:** LTZ-003/009
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:21:37. **Bukatu:** 00:23:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Malen betidanik izan da irakurzalea. Beñatek umetan gehiago irakurtzen zuen, gaur egungo gaiak ez zaizkio gustatzen. "Gose jokoak" liburuen inguruan hitz egiten dute.

8. Liburu-denetara maiz

- **Erref:** LTZ-003/010
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:23:53. **Bukatu:** 00:25:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Malenek liburu-dendetara joateko ohitura du, liburuak ikusi eta erosi edo opari bezala eskatzeko.

9. Hitz egiten al duzue liburu-saltzaileekin?

- **Erref:** LTZ-003/012
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:25:00. **Bukatu:** 00:26:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Beñatek galdetu izan die bilatzen ari den liburuen inguruan.

10. Non irakurtzen duzue?

- **Erref:** LTZ-003/013
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:26:39. **Bukatu:** 00:27:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Malenek sofán eta ohean irakurtzen du, Beñatek, ordea, beti ohean.

11. Barrea eragiten duten liburuak

- **Erref:** LTZ-003/014
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:27:18. **Bukatu:** 00:28:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Karmari buruzko liburu batekin egin izan du barre Malenek. Beñatek gaztetxe eta kontzertuen inguruan zebilen protagonistarekin.

12. Zein hizkuntzatan irakurtzen duzue?

- **Erref:** LTZ-003/015
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:28:22. **Bukatu:** 00:28:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Malenek gaztelaniaz irakurtzen du gehiago, euskaraz eskolako liburuak. Beñatek euskaraz irakurtzea nahiago badu ere, liburuen eskaintza mugatua dela dio, eta askotan gaztelaniaz irakurri behar izaten duela.

13. Liburuak, askotan, gomendatuak

- **Erref:** LTZ-003/016
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:28:57. **Bukatu:** 00:32:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Malenek gomendio bidez irakurtzen ditu liburu asko, amak eta amonak gomendatuta. Beñaten eta Malenen amek bai euskaraz eta bai gaztelaniaz irakurtzen dute.

14. Inoiz negar egin al duzue liburuekin?

- **Erref:** LTZ-003/017
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:32:10. **Bukatu:** 00:33:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Ez batak ez besteak ez du negarrik egin liburuekin. Malenek nahiago du irakurri filmeren bat ikusi baino.

15. Barne egoeraren arabeko musika

- **Erref:** LTZ-005/002
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:00:17. **Bukatu:** 00:01:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Musika antzekoa entzuten dute egunerokotasunean. Internetetik jaitsi eta Youtuben entzuten dituzte abestiak, batik bat mugikorrean.

16. Gustuko dituzten musika taldeak

- **Erref:** LTZ-005/003
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:01:25. **Bukatu:** 00:03:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Andonik kanpoko musika entzuten du gehienbat. Malenek denetatik entuten badu ere, euskal musika gustatzen zaio gehien. Saioak Ken Zazpi eta Hesian

taldeak aipatzen ditu. Beñatek euskal musika entzuten du, Arkada Social, Berri Txarrak, En Tol Sarmento... WhatsApp bidez

17. WhatsApp bidez harremantzea

- **Erref:** LTZ-005/004
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:03:20. **Bukatu:** 00:06:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak

Laburpena:

Musika WhatsApp bidez partekatzen dute musika. Hiru WhatsApp talde dituztela diote: denena, neskena eta mutilena.

18. Zer entzuten zenuten gaztetxoagotan?

- **Erref:** LTZ-005/006
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:06:46. **Bukatu:** 00:08:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Su Ta Gar, Berri Txarrak aipatzen ditu Beñatek. Ken Zazpi, Pirritx eta Porrotx, Txirri Mirri eta Txiribiton, eskolako kantak, gainontzekoek.

19. Oskorri

- **Erref:** LTZ-005/008
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:09:27. **Bukatu:** 00:11:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Oskorri, Kortatu, La Polla Records, Itoitz, Mikel Laboa, Benito Lertxundi, aipatzen dituzte denen artean.

20. telebista saioak

- **Erref:** LTZ-005/009
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:11:30. **Bukatu:** 00:12:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

Master Chef, Castle, Entre Fantasma, La Que se Avecina, Aída, Big Bang Theory, Morden Family, Pequeñas Mentiras, Teleberria, Antena 3 kateko berriak, Simpsonak, debateak... ikusten dituzte.

21. "Euskal telebistak lehiaketaren bat behar du"

- **Erref:** LTZ-005/010
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:12:56. **Bukatu:** 00:14:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

Ia ez dute euskal telebista ikusten, berriak, marrazki bizidunak (txikitan), Vaya Semanita, Mihiluze, Kontrako Eztarria, Wazemank, Martin telesaia... aipatzen dituzte.

22. Zein da elikadura osasuntsua?

- **Erref:** LTZ-005/011
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:14:46. **Bukatu:** 00:17:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura

Laburpena:

Denek adierazten dute elikaduraren garrantzia. Etxeko arraultzak, baratzeako produktuak, fruta... jatea azpimarraten dute. Eskolaren garrantzia aipatzen du Andonik.

23. Garai konfliktiborik izan duzue?

- **Erref:** LTZ-005/013
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:18:25. **Bukatu:** 00:21:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Haserreak denek aipatzen dituzte. Malenek amarekin talka egiten duela aipatzen du, Saioak 13 bat urte zitueneko garaia du gogoan, eta Beñatek azken bi urteetan igarri du gehiago haserretzen dela gurasoekin.

24. Mugikorra: gatazka

- **Erref:** LTZ-005/014
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:21:24. **Bukatu:** 00:23:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

Mugikorrak zenbaitentzat gatazka bat sortu zuen, bete batzuren kasuan, ordea, ez.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com